

Usurbilgo espazio publikoa berrantolatzekeo prozesua


Genero-perspektiba eta eguneroko bizimodua Usurbilgo espazio publikoan

Laburpena: Usurbilgo Espazio Publikoaren Berrantolaketa Planak herritarren bizi-kalitatea hobetzea du helburu; hala, lanketaren hasieratik hartu dira kontuan herritarren iritziak. Gainera, behar-beharrezkotzat jo da, batetik, genero-ikuspegia eta hirigintza inklusiboa oinarritzat hartzea, eta, bestetik, mugikortasun jasangarriaren irizpideak txertatzea.

Hitz-gakoak: hirigintza inklusiboa, espazio publikoa, eguneroko bizimodua, mugikortasun jasangarria, herritarren parte-hartzea.

Abstract: The aim of the Reorganization Plan of the Public Spaces of Usurbil is to improve the quality of life of its citizens. Therefore, the different views of the inhabitants of Usurbil have been taken into account from the very beginning. Besides, it was a must the work to be based on gender perspective and inclusive urbanism, and to include the guidelines of sustainable mobility.

Key words: inclusive urbanism, public spaces, daily life, sustainable mobility, citizen participation.



Jone Miner Aginaga
Arkitektoa eta Usurbilgo HAPOn idazlea

Saioa Zuazubiskar Ardanza
Arkitektoa eta Urak Bide taldeko kidea

Bidaltze data: 2017-04-29
Onartze data: 2017-05-22

Usurbilgo Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten ari da. Plan horrek bertako biztanleen bizimoduan eragin zuzena izango duenez, eguneroko bizitzaren errealitatea eta herritarren iritziak hasiera-hasieratik kontuan hartu nahi izan dira. Hala, Diagnostikoa idatzi zenean analisi teknikoak herritarren parte-hartze prozesu sakon batetik ateratako ekarpenekin osatu zen. Ondoren, dokumentu horretatik ateratako ondorioetan oinarrituta, eta herritarrekin partekatuta eta gero, Aurrerakinako aukerak eta Plana idazteko Irizpide eta Helburuak onartu ziren.

Aipatutako lanean garrantzi berezia izan zuten eraikitako hiriak, herriko mugikortasunak eta ingurumen-arloko analisiek. Azterketa horietatik ondorioztatu zen, besteak beste, herriko mugikortasuna birpentsatu, kaleak oinezkoentzat lehenetsi eta espazio seguruagoak egiteko beharra dagoela. Hori dela-eta, Usurbilgo Espazio Publikoaren Berrantolaketa Plana abian jarri zen joan den irailean.

Berrantolaketa Plan horrek oinarri izan ditu, besteak beste, genero-ikuspegia eta hirigintza inklusiboa. Eta, horretarako, hauek izan dira jarraitu diren irizpideak: eguneroko bizitza aintzat hartzea; norbanakoaren interesetan oinarritutako hirigintza baztertzeta; eta espazio publikoaren konfigurazioari erreparatzea, elkartzeko eta elkarrekin bizitzeko guneen kalitatea hobetu eta zaintza-lana errazteko. Oro har, plan honen helburu nagusia herriaren transformazioak eguneroko bizimoduarekin duen harremana lantzea eta eguneroko bizitza zentroan jartzea izan da. Xede hori lortzeko, ezinbestekoa izan da mugikortasun iraunkor eta demokratikoaren alde egitea; izan ere, azken mendeko

hirigintzak ez ditu parametro horiek kontuan hartu eta, gainera, ibilgailuen joan-etorrietan oinarritu du herrien egituraketa. Autoa hartu da, beraz, garraibide nagusitzat; horrek hartu du zentraltasuna, eta horren beharren arabera kale eta espazioak antolatu dira. Gainontzeko mugikortasun-aukera guztiak eredu horretara egokitu behar izan dira, eta ez zaie oinezkoen, bizikleteen, garraio publikoari, eta abarri beharrezko garrantzirik eman.

Erabiltzaileak dira genero-ikuspegia txertatzen duen hirigintzan adituak; izan ere, herrien funtzionamendua ezagutzen dutenak eta bertan bizitza nolakoa den benetan dakitenak herritarrek dira. Eta, bereziki, kolektibo ahulenean (haurrek, adinekoek, ezinduek, emakumeek, etab.) ezagutzen dute ondoen; alegia, kalean ordu gehien pasatzen dutenek eta, ondorioz, espazio publikoaren potentzialtasunak eta ahultasunak hobekien ikusten eta jasaten dituztenek. Kolektibo horien guztien artean, emakumeena ezinbestean kontuan hartzekoa da, horiek, historikoki, genero-rolak direla medio, zaintza-lanen zama guztia eraman baitute, eta, beraz, beren eguneroko bizimodua ez ezik, gainontzekoena ere oso gogoan baitaude.

Beraz, herriko hirigintza-plan eta -proiektuetan eguneroko bizitza aintzat hartu eta genero-irizpidea txertatzea da lan honen helburua. Horretarako, Usurbilgo espazio publikoaren berrantolaketa eta diseinua egin aurretik, ezinbestekoa izan da herritarrekin diagnostiko parte-hartzaile bat egitea. Hori dela-eta, lanketaren hasieran, herritarrek parte hartzeko prozesu berri bat gauzatu zen; Usurbil Kale Irekiak izenekoa. Bertan, herriko espazio publikoaren eta mugikortasun-ereduaren diagnostikoa osatu, arazo eta potentzialtasunak



Irudia – Haurren lan-saioa, proposamenak.
Egilea – Ibai Pujana Gurtubai.

identifikatu eta proposamenak egiteko aukera izan zuten herritarrek.

Kolektibo ahulenek berrantolaketa-prozesuan parte hartzeko ahalegin berezia egin da. Hala, parte hartzeko prozesuko saioak lau atal nagusitan landu dira: emakumei zuzendutako saio espezifikokoak; haurrentzat, ikastolarekin elkarlanean, gauzatutakoak; Aginaga eta Zubietako auzotarrekin burutu direnak; eta herritar guztiei irekia izan den prozesu orokorra.

Lan-saioek formazioa izan dute abiapuntua, ezinbestekoa baita tresnak eskaintzea, herritarrek hirigintzaren inguruan trebatzea eta informatzea, ondoren azterketa, eztabaida edo hausnarketa egiteko; hots, herritarrek kontziente izatea proposamenak egiterakoan edo lehentasunak finkatzerakoan, erabaki horiek zer eragin duten gainontzeko kolektiboengan. Parte-hartze saioetan argi geratu da herriaren helburua herritarren beharrezanean erantzuten dien bizitokia eskaintzea dela; hau da, komunitate osoa aintzat hartzea eta batasun soziala sortzeko gai izatea. Horretarako, harremanetarako askotariko guneak beharko dituzte Usurbil bezalako herriek, baita inguruaz gozatu ahal izateko espazio atseginak ere. Horregatik, ezinbestekoak izango dira, gizartearen premietara eta familia-eredu guztietara egokitutako garraio-sareaz eta etxebizitza-tipologiez gain, espazio eta gune-antolamendu batzuk, lan-eredu guztiak kontuan hartzen dituztenak.

Parte-hartze prozesuan informazio baliotsua jaso da herritarrengandik; batetik, auzoetako plazak oinezkoentzako gune bihurtzeko beharra ikusi da baita herriguneko gaur egungo oinezkoen gunea zabaltzekoa ere; horrekin

batera, besteak beste, eskolara, kiroldegira, udaletxera eta Artzabal plazara oinezko lotura seguruak egokitu beharra ere nabarmendu da. Bestetik, auzo bakoitzean, horien artean, eta inguruko herriekin lotura izango duen bizikleta-bideen sare bat sortzea eta garraio publikoa hobetzea ere lehentasunezko hartu dira.

Orain, Udala, Usurbil Kale Irekiak prozesuaren fase nagusitik ateratako proposamenetan oinarrituta, herritarren beharren neurriera egindako Plan Zuzentzailea diseinatzeko ari da. Hurrengo pausoa planaren lehen zirriborroa berriro herritarrekin lantzea izango da. Hau da, proposatutako diseinua aurrez parte hartzeko prozesuan finkatutako helburuak betetzeko gai ote den aztertzea, eta hala bada, onespina ematea. Edo, bestela esanda, etorkizuneko Usurbilgo espazio publikoak nolakoa izan behar duen erabakitzea.

:::